



Zer da begira

PUBLIZITATE
ETA KOMUNIKAZIO
EZ-SEXISTA ERABILTZEKO
AHOLKU BATZORDEA



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

Publizitateak eta komunikazioak eragin handia dute errealtatea ulertzeko dugun moduan; izan ere, irudiak eta mezuak errepikatuta, balio, portaera-eredu eta bizitzeko era jakin batzuk kritika gabe onartzea bultzatzen dute.

Hala publizitatean nola komunikazioan, oraindik ere, elementu benetan sexistak erabiltzen dira, eta, horien bidez, emakumeentzat zein gizonentzat baztertzailak diren rol sozialak gizarteratzen eta naturalizatzen dira; pertsonak, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun handiagoa ala txikiagoa dutela erakusten digute, eta, are gehiago, emakumeen aurkako indarkeria justifikatu, hutsaldu edo bultzatzen dute.

Eredu eta prototipo horiek ez datoz bat, inondik inora, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea xede duten hezkuntza- eta gizarte-arloko helburuekin.

Hala, BEGIRA Batzordearen helburu nagusia da eduki mediatikoek emakumea ez gaizki tratatzea, ez umiltzea edo mendekotzat ez aurkeztea, eta, era berean, emakumeez eta gizonez ematen den irudia bat etortzea lortu nahi dugun errealtate sozialarekin.

Informazio gehiago nahi baduzu BEGIRAREN jarduerari buruz edo kexa bat jartzeko prozedurari buruz, ikus:

<http://www.emakunde.euskadi.eus/begira>

Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz
Tel.: (34)-945 016 700
Fax (34)-945 016 701

e-mail: emakunde.begira@euskadi.eus

Publizitatea eta komunikabideak oinarritzko elementuak dira estereotipo sexistak indartzeko edo aldatzeko

Informazioa, entretenimendua eta produktuen eta zerbitzuen salmenta eskaintzen dizkigute. Baina, horrez gain, mezuak eta balioak ere ematen eta saltzen dizkigute; askotan, guk eskatu ere egin gabe, gainera, eta barneratu egiten ditugu

begira

Zer da BEGIRA

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzorde bat da, aholku-emaile eta topagune. Batzordearen zeregina da aholkularitza eskaintzea eta azterketak egitea, publizitate eta komunikazioaren eremuetan sexuaren ziozko bereizkeria mota oro desagerrarazteko.

Halaber, komunikabide publikoek zabalduko edukiek kode etikoak izan eta aplikatu dituzten sustatzen du, eta komunikabide pribatuekin akordioak egitea bultzatzen du, komunikazioa berdintasun-printzipiora egokitu dezaten.

Begira / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordearen ekainaren 11ko 360/2013 Dekretuaren bidez arautzen da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 27. artikuluan ezarritakoari erantzunez.

BEGIRaren jarduera-eremua

Jarduera-eremuak publizitatea –euskarria edozein delarik ere– eta komunikazioa dira, nola titulartasun publikoko komunikabideenak hala pribatukoena. Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuan jardungo du beti (EAE).

Zein dira BEGIRaren egiteko nagusiak

- Publizitatea eta komunikazioa aztertzea eta horren segimendua egitea.
- Publizitate eta komunikazio ez-sexistaren alorrean sentsibilizatzea eta prestakuntza eta aholkua ematea.
- Sexismoari buruzko irizpideak eta alternatibak ezartzea publizitatean eta komunikazioan.
- Herritarrek eta erakundeek jarritako kexak jasotzea eta aztertzea, eta, hala badagokio, organo eskudunetara bideratzea.
- Zehapen-prozedura bat irekitzea proposatzea, 4/2005 Legean ezarritakoari jarraituz.

Norkosatzen du BEGIRA

Emakundeko Idazkari Nagusia da batzordeburu, Idazkaritza Tekniko bat du, eta hamaika batzordekide, honako hauek ordezkatuz:

- Publizitatearen alorrean Eusko Jaurlaritzaren aholku- eta kontsulta-arganoa.
- Eusko Jaurlaritzan kulturaren, merkataritzaren eta hezkuntzaren alorrean eskudun den saila.
- Euskal Irrati Telebista.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko publizitatearen zein komunikazioaren alorra.
- Emakunderen Aholku Batzordea, EAEko emakumeen parte-hartzea biltzen duena.
- EAEko kontsumitzaileen elkarteak eta federazioak.
- Genero-berdintasunean eta publizitatean aditu den pertsona bat.
- Genero-berdintasunean eta komunikazioan aditu den pertsona bat.